

# Parte-hartzeko prestakuntza- ikastaroak

2022ko URTARRILA-MARTXOA





# Aurkibidea

ZENTRO. ELKARLANEKO GUNEA	4
PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA. PRESTAKUNTZA NAHIERAN, GIZARTE-ERAKUNDEENDAKO	5
ARGIBIDEAK ETA AURRETIKO IZEN-EMATEAK	6
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	7
- Gizarte-trebetasunak	8
- Partaidetza-tresnak	11
- Gizarteratzea	16
- Elkarteen kudeaketa	20
- Trebetasun teknologikoak	22
- Kulturartekotasuna	23
EGUTEGIA	25

---

### **COVID-19ak EZ GAITZALA GELDIARAZI!**

Herritarren partaidetzaren arloko prestakuntza-ikastaroen programazio honek urtarril-martxorako aurrez aurreko eta online ikastaroak biltzen ditu. Une oro beteko dira jarduera guztiak seguruak izan daitezen ezarritako neurri soziosanitarioak. Programazioan egon daitezkeen aldaketak une bakoitzean egoerara eta ezarritako neurrietara egokitzekeo izanen dira.

**Zentro** Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorraren barruan dago. Guneak xede du udalerriko kolektiboak eta eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua. Partaidetzarako prestakuntza
- Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua

---

### **Helburu du:**

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarren eta profesionalen eskura jartzea.
- Gizarte-loturak eta herritar aktiboak sustatzea
- Lankidetzak-dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapenaren alde egiten duten herritarren artean.
- Gaitze-prozesuak garatzea, hiriko eragile sozialei zuzenduak, partaidetzan eta herritartasun aktiboko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezen eta gogoeta egin dezaten.

---

### **Nori zuzendua:**

Gizarte zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarte, kolektibo eta entitateei, Udala eta Administrazio Publikoari (politikariei eta teknikariei) eta arlo sozio-komunitarioko langileei (gizarte-hezkuntza, -kultura, -osasun, -ingurumen eta abarrekoei).

# Partaidetza- rako pres- takuntza.

## - Prestakuntza nahieran, gi- zarte entita- teendako .

Herritarren Partaidetzak 18 ikastaro eskaintzen ditu 2022ko urtarriletik martxora, euskaraz eta gaztelaniaz, hala herritarrei nola kolektibo zein elkarteei zuzenduak.

Hona hiruhileko honetan zedarritu diren ildoak:

- Gizarte-trebetasunak
- Partaidetza-tresnak
- Gizarteratzea
- Elkarten kudeaketa
- Trebetasun teknologikoak
- Kulturartekotasuna

### Zer eskaintzen dugu?

Hainbat prestakuntza- eta sustapen-zerbitzu eskaintzen dira

- Etengabeko prestakuntza (hiruhilekoa)
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako)
- Prestakuntza elkarteekin (Alorraren partaidetza-prestakuntzarako dirulaguntzen bidez)
- Partaidetza sustatzeko hainbat jarduketa mota antolatzea, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, argitalpen propioak...

### Nola lagundu? Prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa

Herritarren Partaidetzak prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa bat sortu du, prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten profesionalak edo enpresek proposamena egiteko aukera izan dezaten. Halaber, prestatzaileen elkarteekiko hartu-emanak erraztuko dira, betiere beharrak kontuan hartuta.

Prestatzaileen poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauez osatua:

- Aurkezpen-gutuna
- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae

### Hona bidali

[formacion.participacion@pamplona.es](mailto:formacion.participacion@pamplona.es)

### Informazioa eta harremanetarako datuak

**Tel.** 948 42 02 66  
**Emaila** [formacion.participacion@pamplona.es](mailto:formacion.participacion@pamplona.es)  
**Webgunea** <http://participa.pamplona.es/>  
<https://erabaki.pamplona.es>

**Youtube:** [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)

**Facebook:** Parte Hartu Iruña

**Twitter:** @partehartu\_iru

**Flickr:** [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona/)

## Argibideak eta behin-behineko izen-emateak:

### Matrikula doan

#### Argibide gehiago

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza  
eta Gazteriako Alorra  
Zentro, elkarlaneko gunea.

- **18 urtetik gorakoendako**, ikastaro jakin batzuetan izan ezik; kasu horietan, prestakuntza-jarduerari buruzko informazioan zehaztuko da.
- Behin-behineko izen-ematea egiteko epeak berariaz zehazten dira ikastaro bakoitzean. Irizpide orokor gisa, **aurrez izena emateko epea urtarrilean zabalduko da, eta ikastaroa hasi baino bi aste lehenago itxiko.**
- **Ikastaro batzuk euskaraz eskaintzen dira, beste batzuk, gaztelaniaz.**
- Behin-behineko izen-ematea egiteko, onlineko formulario bat bete beharko da nahitaez ikastaro bakoitzeko participa.pamplona.es webgunean sartuta.
- Behin-behineko izen-ematearen epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
- **Onartuek izen-ematea berretsiko dute behin betiko izena emanez.**
- Parte-hartzaileak onartuko dira, ikastaro bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua osatu arte.
- **Izena eman baduzu baina ezin bazara ikastarora etorri**, ikastaroa hasi aurretik jakinarazi, mesedez. Jardueran baja ematen baduzu, beste pertsona batek izena ematen ahalko du zuk libre utzi duzun lekuan.
- Ikastaroren baterako eskaintako lekuak baino eskaera gehiago badira, ikastaro bakoitzaren berariazko irizpideen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak, betiere Iruñean erroldatuta egon eta bizi direnei lehentasuna emanez.
- Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 85era agertu ez diren pertsonen kasua, eta ikastaroren batean lan pertsonala egiten bada, hura entregatu ez izana.
- Halaber, **bertaratze-agiria emanen zaie** ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.
- Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren ikastaroak bertan behera utz daitezke.

# Etengabeko prestakuntza

## EDUKIA

<b>1. GIZARTE-TREBETASUNAK</b>	<b>8</b>
1.1. Etsaiaren irudiak deseraikitzea	8
1.2. Komunikazio eraginkorra praktikatuz (euskaraz)	9
1.3. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik abiatuta	10
<b>2. PARTAIDETZA-TRESNAK</b>	<b>11</b>
2.1. Egitasmoak eta taldeak birbideratu pandemia osteko testuinguruan	11
2.2. Bizikidetza sustatzea: bitartekarien esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak.	12
2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)	13
2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)	13
2.5. Garapen jasangarrirako helburuak: sarrera. denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)	14
2.6. Hemen eta orain: adinekoen begirada eta ahotsak	15
<b>3. GIZARTERATZEA</b>	<b>16</b>
3.1. Irisgarritasun kognitiboa eta irakurketa erraza: desgaitasun intelektuala duten pertsonendako herritarren partaidetzarako lanabesa	16
3.2. Paris 365: elkartasuna elikatzeko errezetak	17
3.3. Gizarte mentoretza: laguntza informala	18
3.4. Herritar aktiboak eta inklusiboak: begirada bat desgaitasunetik eta nerabezarotik	19
<b>4. ELKARTEEN KUDEAKETA</b>	<b>20</b>
4.1. Giza baliabideak zure elkartean: boluntarioak, norbere kontura lan egiten duten profesionalak eta besteen kontura lan egiten duten langileak	20
4.2. Elkarteen finantzaketa eta kontabilitatea.	21
<b>5. TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK</b>	<b>22</b>
5.1. Komunikazio digitala elkarteentzat	22
<b>6. KULTURARTEKOTASUNA</b>	<b>23</b>
6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?	23
6.2. Antzerki Foro interseksionala, hausnarketatik praktikara	24
<b>EGUTEGIA</b>	<b>25</b>

# 1. Gizarte-tre betasunak

## Datak

Urtarrilak 28 eta 29

## Ordutegia

Ostiralean, 17:00 - 21:00

Larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00.

## Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 21a arte

## 1.1 ETSAIAREN IRUDIAK DESERAIKITZEA

Etsaia norbanako jakin bat izan daiteke: auzokide bat, lagun zahar bat, ertzeko dendaren arduraduna..., edo zera abstraktuago bat: erakunde batean eginkizuna duen kidea, herrialde bat, taldekide bat...

Etsaiaren irudia bada, denek dute komunean ezin dugula haien gizatasuna ikusi. Pertsona edo auzi horien bertsio desitxuratu, murriztu eta osatugabea dugu, askotan iritzi eta uste kolektiboetan oinarritua.

Indarkeriarik gabeko Komunikazioak giza-begirada hura aurkitzen, pentsamendu mugatzaile horiek deseraikitzen eta geure eta besteen ase gabeko beharrak kontutan hartzen lagun gaitzake.

Lantegi hau etsaiaren geure irudiekin lan egiteko pentsatuta dago, eta aldi berean, teknika eta ondorio berberak beste gune edo kolektibo batean erabiltzeko balio diezaguke.

---

## Edukiak

- Indarkeriarik gabeko Komunikazioa: sarrera
- Enpatia eta sentimendu desatseginak bideratzea
- Mundua eta besteak ikusteko 4 erak
- Pertsona eta arazoa ezberdindu
- Geure eta besteen auto-kontzeptua malgutu

---

**Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

## Nork emana: Franziska Rautenberg

Psikologoa (tituluduna Alemaniako FU-Berlingo Unibertsitatean <http://www.ewi-psy.fu-berlin.de/>), terapeuta sistemikoa familia eta bikoteetan (Euskadi eta Nafarroako Familia Terapiako Eskola). Indarkeriarik gabeko Komunikazioko prestatzaile egiaztatua CNVC-n. Bideratzailea Embodied Peacemaking-ean.



# 1. Gizarte-tre betasunak

## **Datak**

Otsailak 4 eta 5

## **Orduetgia**

Ostiralean, 16:30-20:30

Larunbatean, 9:00-14:00 eta 17:00-20:00

## **Tokia**

ZENTRO elkarlaneko gunean  
(Kondestablearen jauregia), kale  
Nagusia, 2

## **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 28a arte

## 1.2. KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA PRAKTIKATUZ (EUSKARAZ)

Ezinezkoa da ez komunikatzea. Etengabe komunikatzen dugu begiradarekin, isiluneeekin, gorputzaren jarrerarekin, hitzekin. Erronka solturaz komunikatzea da, sentitzen dugunarekin eta garen horrekin koherente izanez.

Izaera praktikoko eta bizipenezko ikastaro honetan komunikazioaren artea menderatzeko tresnak ezagutuko ditugu, eta gozamen eta benetakotasun handiagoz mugituko gara pertsona barruko eta pertsonen arteko komunikazioan.

Hainbat diziplinatan oinarritutako dinamikak erabiliko dira, hala nola coachingean, programazio neurolinguistikoa eta Alba Emoting metodoan. Sormen-ariketak, erlaxatzekoak eta gorputz-adierazpenekoak ere egingen dira, musikaz lagunduta.

---

### **Helburuak**

- Indargune pertsonalak eta hobetu daitezkeen arloak ezagutzea.
- Bakoitzak taldeetan komunikatzeko dugun estilo bakarra eta geurea ezagutzea.
- Gure emozioak hobe erregulatzen eta ezagutzen ikastea.
- Elkarrizketa eraginkor bat mantentzeko urratsak ikastea.
- Gure komunikazioari lotutako sineskeria mugatzaileak apurtzea.
- Gure barne-elkarrizketa eta auto-estimua hobetzea, gure argi-ilunak onartuz.
- Gure harreman pertsonalak edo profesionalak hobetzeko tresnak eskuratzea.
- Beste taldekide batzuen esperientzietatik elikatzea.

---

### **Edukiak**

- Norberaren balioak eta gaitasunak
- Sineskeria mugatzaileak eta uste indartzaileak
- 3 dimentsioak: hizkuntza, gorputza eta emozioa
- 3 jarrerak: 1. pertsona, 2. pertsona, 3. pertsona
- Funtsezko gaitasunak: enpatia, auto-konfiantza, malgutasuna
- Elkarrizketa ahaltsu baterako 5 urratsak
- Emozioen kudeaketa eta zikloa
- Harreman motak eta komunikazio-estiloak

---

**Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena**

Egiatagiria duen coach-a, Trainer masterduna Programazio Neurolinguistikoa (PNL) eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizenziaduna.

# 1. Gizarte-tre betasunak

## **Datak**

Martxoak 18 eta 19

## **Ordutegia**

Ostiralean, 17:00 - 21:00

Larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00.

## **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## **Behin-behineko izen-ematea**

Urriaren 4ra arte

## 1.3. HARREMANAK ERAIKITZEA ADIMEN EMOZIONALETIK ABIATUTA

### **Helburuak**

- Emozioaren jatorri fisiologiko eta kognitiboa ezagutu eta gorputzaren bidez gure emozioak ezagutzen ikastea.
- Emozioak auto-doitzeko teknikak aztertzea.
- Baliabide pertsonalak baliatzea gatazkak egokiro kudeatzeko.
- Komunikazio-tresnak eta teknika asertiboak eskuratzea egoera emozional desegokiak kudeatzeko.

### **Edukiak**

- Auto-ezagutza emozionala: Emozioaren elementu kognitiboa, fisiologikoa eta jokabidezkoa.
- Emozioak adieraztea eta doitzea.
- Gatazketan elkar ulertzen: gure premiekiko lotura.
- Gizarte-trebetasunak: elkar ulertzeko gakoak.
- Pertsonen arteko komunikazio-gaitasunak:
- Enpatia: besteen sentimenduak ulertzen.
- Hizkuntza asertiboa: lehen pertsonan solasean.

### **Metodologia**

Metodologia nagusiki praktikoa, azalpen teorikoak banakako nahiz taldekako dinamikekin uztartuko dituen, ikasketa esanguratsuak lortzeko bide gisa.

### **Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)**

### **Nork emana: María Méndez Barrio**

Coach-a, bitartekaria eta prestatzailea gatazkak positiboki kudeatzeko gaietan.

## 2. Partaidet za-tresnak

### **Datak**

Urtarrilak 25, otsailak 1, 8 eta 22, eta martxoak 1 eta 10

### **Ordutegia**

Astearte eta ostegunetan: 18:00 - 20:30.

### **Tokia**

ZENTRO elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2

### **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 18ra arte

## 2.1 EGITASMOAK ETA TALDEAK BIRBIDERATU PANDEMIA OSTEKO TESTUINGURUAN

Konplexutasunak eta ziurgabetasunak, besteak beste, zedarritzen dute zenbait hamarkadatik hona bizi dugun gizarte-testuingurua, "gizarte likidoa" izenekoa. Pandemiak, herritar guztiak estres sozial altuko kinkan jarrita, areagotu egin du herritarren osasun fisiko eta mentalerako arriskua. Halako testuinguru konplexu eta ziurgabe honetan giza taldeak zuzentzeko inoiz baino beharrezkoagoa da lan egiteko moduak egokitzea eta, aldi berean, harreman egokiak sortzea, testuinguru zein erakunde osasungarriak zein jasagarriak eraikitzeko.

### **NORI ZUZENDUA?**

Taldeak, elkarteak eta erakundeak koordinatzeko eta zuzentzeko eginkizunak dituztenei. Egokia da lehen aldiz rol hauek hartzen dituztenendako eta lankidetzan, talde-lanean eta gizarte-berrikuntzan oinarritutako zuzendaritza-eredu bat garatu nahi dutenendako.

---

### **Edukiak**

- Giza erakundeen gaineko ikuspegi sistemikoa.
- Zuzendu, kudeatu eta buru izatea aldaketa eta krisi garaian.
- Arrisku sikosozialeko faktoreak pandemia-garaian.
- Gizarte-berrikuntza: lantaldeak eta egoeraren arabeko lidergoa.
- Ikasten duten erakundeak.

---

### **Helburuak**

- Talde-zuzendaritzan gaitzea etengabeko ziurgabetasun testuinguruetan
- Egoeraren araberako lidergo moldakorra eraikitzea erraztea
- Estrategiak ezagutu eta praktikan jartzea pertsonen ongizatea eta erakundeen eraginkortasuna uztartzeko

---

### **Metodologia**

Gogoeta-ekintzako eredu pedagogikoa. Sarrera teorikoetatik abiatuta, parte-hartzaileek eguneroko testuinguruetan duten esperientziaren edukiak aurkezten dituzte. Taldea ikaskuntza-gune gisa, non rol berriak, estrategiak eta alternatibak praktikatzen baitira ziurgabetasunari aurre egiteko.

---

### **Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Blas Campos Hernández**

BIDARI Prestakuntza eta Aholkularitza, Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Krisialdian esku-hartzeen espezialista. Diplomaduna profesionalen Orientazioan eta Gainbegiratzean Familia-terapeuta sistemikoa

## 2. Partaidet za-tresnak

### **Datak**

Otsailak 28 eta martxoak 1, 7, 14 eta 15

### **Ordutegia**

Astelehen eta asteartean: 17:00 - 20:00

### **Tokia**

ZENTRO elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2

### **Behin-behineko izen-ematea**

Otsailaren 14ra arte

## 2.2 BIZIKIDETZA SUSTATZEA: BITARTEKARIEN ESKU-HARTZEETARAKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK.

Komunitate-inguruneen ongizatea ez da berez ematen, pixkanaka-pixkanaka eraikitzen da, eta indartu egiten da elkarren arteko topaketarekin eta besteen eta beste arteko topaketarekin eta ezagutzarekin. Ezagutzatik eta aitortzatik bakarrik has gaitzke pertsonen berdintasunaren alde lan egiten: ezagutzen badut bakarrik enpatiza dezaket. Elkar ezagutzeko, elkarrekin hitz egin eta elkarri entzun behar diogu, eta bestea komunitateaz bestelakoa eta okerragoa delako ustea eraitsi.

Bizikidetzaren sustapenean lan egiteko, tresna eraginkorren oinarritzko ezagutzak behar dira berariazko prozesu eta teknikei buruz. Ikastaro honetan, modu praktikoan landuko ditugu tresnak eta metodologia bakoitzaren egokitasuna.

Xedea da pertsonak gaitzea esku-hartze komunitarioko metodologiak helburuetara egokitzeko: metodologia parte-hartzaileak, esku-hartze bitartekariak, lankidetzak-espazioak, arbitrajeak, etab.

---

### **Edukiak**

- Bestearekiko beldurra: topaketa eta konexioa gizarte-kohesioaren motore gisa
- Metodologiaren egokitzapena: bitartekaritza, arbitrajeak, parte-hartzea eta lankidetzak.
- Gutxieneko baldintzak inguruan, esku-hartze bitartekariak egin ahal izateko.
- Gatazkak konpontzeko estrategiak eta metodoak, komunitatearen testuingurura aplikatuta.
- Pertsonen arteko elkarriketarako espazioak bideratzeko tresna eraginkorrak.

---

### **Helburuak**

- Gatazkak diagnostikatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea
- Gatazkak kudeatzeko metodologiak esparru komunitariora egokitzen ikastea
- Auzo/komunitate-espazioetan esku-hartze bitartekariak egiteko estrategiak eta tresnak eskuratzea.

---

### **Metodologia**

Entzutea, komunikaziorako ingurune seguru bat eratzea oso garrantzitsua da ikasketa esanguratsurako. Bizipenezko jarduerak izanen dira. Dinamikak, eztabaida, bideoak, roll playing-a, banakako gogoeta eta talde-lanaren bidez gauzatuko dira, ikasketa errazteko.

---

### **Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Maite Eraso Ascunce.**

Gizarte-langilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.

## 2. Partaidet za-tresnak

### **Datak**

Otsailak 16 eta 23

Gaztelaniaz:

otsailak 16 eta 23, (asteazkenak)

Euskaraz:

otsailak 16 eta 23 (asteazkenak)

### **Ordutegia**

17:00 - 19:00

### **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean  
(Kondestablearen jauregia), kale  
Nagusia, 2.

### **Behin-behineko izen-ematea**

Otsailaren 2ra arte

### 2.3. DINAMIZACIÓN DE REUNIONES

### 2.4. BILEREN DINAMIZAZIOA

Modu praktikoan eta dinamikoan bileren eta topaketen funtzionamendura bideratuko den prestakuntza, elkarteendako eta, oro har, herritarrendako. Iruñeko Udaleko Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren esperientzian oinarritutako oinarritzko alderdiak landuko dira.

---

### **Edukiak**

- Bilera eraginkor baterako aholkuak
- Bilera baten faseak
- Dinamikak
- Esperientzia praktikoak

---

### **Helburuak**

Oinarritzko ezagutza orokorrak eta atariko ezagutza praktikoak eskuratzea, bilerak dinamizatzeko.

---

### **Iraupena: 4 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

**Nork emana:** Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetza Dinamizatzeko Zerbitzua.

## 2. Partaidet za-tresnak

### **Datak**

Otsailak 1 eta 3

### **Ordutegia**

Astearte eta ostegunean, 18:00 - 20:00

### **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean  
(Kondestablearen jauregia), kale  
Nagusia, 2

### **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 25a arte

## 2.5. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK: SARRERA. DENONDAKO OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)

Ikastaroak Iruñeko herritarrei hurbildu nahi dizkie 2030 Agenda eta pertsona guztiondako oparotasuna sortzeari dagozkien GJH helburuetan oinarritutako Garapen Jasangarrirako Helburuak, horiek lortzeko norbanakoaren parte-hartzea sustatzeko xedez.

---

### **Edukiak**

- 2030 Agendaren esparru orokorra eta GJHen ikuspegi orokorra.
- GJHen ildo orokorrak: 7. GJHtik 11. GJHra
- Sakontzea: 8. GJH: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa, 10. GJH: Desberdinkeriak murriztea, 11. GJH: Hiri eta komunitate jasangarriak
- Praktika egokien inguruko hausnarketa.
- Alternatibak mundu bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko.

---

### **Helburuak**

- Ezagutzera ematea zer diren 2030eko Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).
- GJHen funtsezko alderdiak sustatzea herritarrek konpromisoa hartzeko eta parte hartzeko.
- Egungo erronken konplexutasuna aztertzea, Hego ikuspegi batetik.
- Aldatzeko eta gizarte berdinzaleagoak sortzeko nahia eta beharra eragitea.
- Herritar aktiboak eta eraldatzaileak sustatzea.

---

**Iraupena: 4 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

**Nork emana: Nafarroako GGKEen Koordinakundea (Hezkuntza Batzordea). Idoia Ortabe (Paz y Solidaridad), Sara Ramos (ONAY) eta Ani Urretavizcaya (ALBOAN).**

## 2. Partaidetza-tresnak

### **Datak**

Urtarrilak 21 eta 28, otsailak 4, 18 eta 25, martxoak 4, 18 eta 25, apirilak 1 eta 8

### **Ordutegia**

Ostiralean, 10:00 - 12:00.

### **Tokia**

Descalzos k. 56 (igogailuaren eraikina), 2. solairuko aretoa

### **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 17ra arte

## 2.6. HEMEN ETA ORAIN: ADINEKOEN BEGIRADA ETA AHOTSAK

Aniztasunetik adinekoen parte hartzea sustatzera bideratutako ikastaroa, haien ekarpenak agertaraziz eta onartuz.

### **Edukiak**

- Elkarleen eginkizuna, balioa eta dinamizazioa.
- Herritarren eskubideak: adinekoak.
- Herritarren eskubideak: politikak eta baliabide publikoak.
- Bitartekaritza- eta errazte-teknikak.
- Partaidetza-mota eta-maila ezberdinak.
- Proiektu osoak elkarreetan: egitasmoak eta jarduerak garatzeko baliabideak.
- Ikaskuntza eta Zerbitzuko Proiektuak: komunitate lankidetzako esperientziak eta aukerak.
- Zahartze aktiboa: osasuna, maitasuna eta zaintzak.
- Etxebizitza-aukerak.
- Informazio eta komunikazio prozesuak.

### **Helburuak**

- Partaidetzaren ezagutza erraztea bere dimentsio anitzetan.
- Elkarrekin hausnartzeko eta elkarlaneko ikaskuntzarako gune berdinzaleagoak sustatzea.
- Komunitatean dauden baliabideen ezagutza erraztea parte-hartzea gauzatzeko.

### **Metodologia**

Ikuspuntu parte-hartzailea duen metodologia batetik helduko zaio, adinekoek protagonismo handiena har dezaten eta teknikariak erraztaile izan daitezen.

Funtsezko edukien azalpen dinamiko eta hurbilean oinarrituko da, hainbat erakundetako adineko boluntarioen edukiekin lotutako bizipen eta esperientzien aurkezpenekin batera.

Gaiak taldeka lantzeko teknika eta ariketa dinamikoak erabiliko dira saio bakoitzean.

Genero ikuspegia zeharka landuko da, baita berariaz ere eduki batzuei dagokienez.

**Iraupena: 20 ordu (aurrez aurrekoa)**

**Nork emana: Txantreako adinekoen Autonomia bultzatzeko zerbitzua - Convive Santesteban (Caja Navarra fundazioa) / PAUMA fundazioa.**

# 3. Gizarteratzea



## **Datak**

Urtarrilak 24 eta 26; otsailak 2, 8 eta 9

## **Ordutegia**

Ordutegia: 16:00 - 19:00

## **Tokia**

Online

## **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 17ra arte

## 3.1 IRISGARRITASUN KOGNITIBOA ETA IRAKURKETA ERRAZA: DESGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONENDAKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO LANABESA

Ikastaro honek beharrezko ezagutza teknikoa ematen du irisgarritasun kognitiboa ezagutzeko, irakurtzeko errazak diren testuak egokitu eta idazteko eta entitateei beharrezko erremintak emateko desgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartzea errazte aldera.

---

### **Edukiak**

- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua
- Irisgarritasun kognitiboa
- Irakurketa eskubide gisa
- Irakurketa-errazaren kontzeptua
- Onuradunak
- Indarreko legeak
- Irakurketa-errazaren abantailak
- Irakurketa-erraza idazteko eta diseinatzeko Europako jarraibideak
- Jarraibide zehatzak testu motaren arabera

---

### **Metodologia**

Gure lan-metodologiak 1+1 du izena eta prestatzaile-bikote batek egindako lanean datza, ikastaroak prestatu eta ematean. Profesional 1 + desgaitasun intelektuala edo garapeneko duen profesional 1. Azken horrek, prestatzaile izateaz gain, oso garrantzitsua den beste rol bat dauka: testuak baliozkotzearena. Horrela, prestakuntza teorikoa eskaintzen da, eta benetan erabiltzerakoan praktikan jartzeko esperientziak osatzen du.

---

### **Iraupena: 15 ordu (online)**

---

**Nork emana: Olga Berrios** (Plena Inclusión Konfederazioa), **Sonia Ganuza eta Vanesa Alonso** (ANFAS -Desgaitasun Intelektuala edo Garapeneko duten Pertsonen eta Horien Senideen aldeko Nafarroako elkarte-).



# 3. Gizarteratzea

## Datak

Martxoak 28 eta 30

## Ordutegia

Astelehen eta asteazkenean, 17:30 - 20:30

## Tokia

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## Behin-behineko izen-ematea

Martxoaren 14ra arte.

## 3.2. PARIS 365: ELKARTASUNA ELIKATZEKO ERREZETAK

Pertsona zaurgarriek elikatzeko duten eskubidea, askotan, honako premisa honetan oinarritzen da: "Dilistak dira, nahi badituzu jan eta ez badituzu nahi, hor utzi". Zergatik? Non geratzen dira duintasuna eta erabakitzeke zein hautatzeko gaitasuna? Pertsona zaurgarriek gauza asko izan ditzakete eskubide eta bermeen faltarik izan behar. Oinarrizko eskubide horietako bat elikatzeko eskubidea da. Ikastaro honen bidez erakutsi nahi dugu erakunde batek eta gizartearen parte-hartzeak elikatzeko eskubidea berma dezaketela.

### Helburuak

- Gizarte-bazterketaren bilakaera ezagutzea Iruñean
- Elikatzeko eskubidea Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) parte gisa ulertzea
- Elikadura solidarioko proiektu bat garatzeko bete behar diren irizpideak identifikatzea

### Edukiak

- Historia duen errezeta: Gizakia Herritar/Paris 365 Fundazioaren jatorria eta bilakaera
- Errezeta hasi aurretiko ezinbesteko baldintzak:
  - Produktu freskoak eta gertukoak: herritarren proiektu bat, moldakorra eta hiriari egokitua
  - Ez ahaztu inoiz norendako prestatzen dugun janaria: testuinguruaren eta erabiltzaileen etengabeko diagnostikoa.
- Osagaiak:
  - Duintasuna osagai nagusi gisa
  - Gizartearen parte-hartzea ezinbesteko oingailutzat
  - Eta laguntzeko... Lagun-egite soziala

### Iraupena: 6 ordu (aurrez aurrekoa)

**Nork emana: Sofía Antón Arraez** (gizarte-langilea eta elikadura-baliabideen arduraduna).

**Maribel Turias Dancausa** (boluntarioendako bulegoko arduraduna) eta **Myriam Gómez García** (Koordinatzaile-gerentea).

# 3. Gizarteratzea

**Datak**

Otsailak 17

**Ordutegia**

Ostegunean, 18:30 - 20:30

**Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

**Behin-behineko izen-ematea**

Otsailaren 3a arte

## 3.3. GIZARTE MENTORETZA: LAGUNTZA INFORMALA

Gizarte mentoretza da beren burua borondatez eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzea, aukera- ezberdintasun egoeran dagoen beste pertsona bati banakako laguntza emateko, kasu honetan, Nafarroan inoren kargu ez dauden gazte atzerritarrei. Lantegia gizartean esku-hartzeko metodologia horretara hurbiltzen da, eta onura ugari dakarzkie egitasmoan bai parte hartzaile diren mentoregaiei baita mentore lana egiten dutenei ere.

---

**Helburuak**

Gizarte mentoretza laguntza ez-formalerako tresna bezala ezagutaraztea

---

**Edukiak**

Lantegiaren edukiak dira proiektu esperimentalaz azalpenak eta inoren kargura ez dauden migratzaileak gizarteratzeko tresna gisa gizarte mentoretza erabiltzeaz azalpenak.

- Sarrera: gizarte mentoretza.
- Gizarte mentoretzaren ahalmenak gizarte ekintzan.
- Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa gizarte mentoretzaren bidez.
- Mentorearen rola eta bere ingurunea. Mentorearen profila.
- Gizarte mentoretzako esperientziak Nafarroan. Kideak programa.
- Eztatbaida eta iritziak trukatzeta. Galderak.
- Amaiera

---

**Iraupena: 2 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

**Nork emana:** ZAKAN Soziala (Gizarte Mentoretza Kideak programa)

# 3. Gizarteratzea

**Datak**

Martxoak 29

**Ordutegia**

Asteartean, 17:00 - 20:00

**Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

**Behin-behineko izen-ematea**

Martxoaren 15era arte

## 3.4. HERRITAR AKTIBOAK ETA INKLUSIBOAK: BEGIRADA BAT DESGAITASUNETIK ETA NERABEZAROTIK

Tarte honetan, laburki azalduko ditugu ASPACEren jatorria eta 50 urteko esperientzia baliabideak zabaltzen eta garun-paralisia eta antzeko ezgaitasunak dituzten pertsonen parte-hartzea, autonomia eta eskubideak sustatzen.

Aukera izanen dugu garun-paralisia duen pertsona baten esperientzia entzuteko, eta ezagutzeko nola eragin duen egoitza-baliabideen eta programetako tresnen ikuspegi aldaketak, Herritartasun Aktiboarena kasu.

Halaber, nerabezaroan aisian eta denbora librean inklusioa sustatzeak duen garrantzia landuko da, eta hezkuntza-helburuen barruan egon daitezkeen inklusioko estrategia dinamikoak landuko dira.

---

**Helburuak**

- Instituzioetako ikuspegi aldaketa erakustea, autodeterminazioa oinarri hartuta
- Aisialdi eta denbora libre egokituko alternatibak ezagutzea (nerabezaroko gizarte-zailtasunak)
- Hezkuntza-sistemaren inplikazioa desgaitasuna dutenen inklusiorako

---

**Edukiak**

- Autodeterminazioan eta lehen pertsonan kontatutako esperientzian oinarritutako programak
- Desgaitasunagatik harremanetarako zailtasunak nerabezaroan: antzematea eta alternatibak
- Hezkuntza-sisteman inklusio-dinamikak egiteko adibide praktikoak

---

**Iraupena: 3 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

**Nork emana: Adela García** (ASPACEko Herritar Aktiboak programako koordinatzailea) eta **Olatz Navarro** (Carmen Aldave egoitza eta Aspace Press zentro okupazionalako langilea).

## 4. Elkarteak kudeaketa

### **Datak**

Urtarrilak 21

### **Ordutegia**

Ostirala, 17:00 - 20:00.

### **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

### **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 17ra arte

### 4.1 GIZA BALIABIDEAK ZURE ELKARTEAN: BOLUNTARIOAK, NORBERE KONTURA LAN EGITEN DUTEN PROFESIONALAK ETA BESTEEN KONTURA LAN EGITEN DUTEN LANGILEAK

Elkarteak kudeatzeak berekin dakarzkio soldatapeko, profesional autonomo edo boluntario gisa honi lotutako pertsonak kudeatzeari buruzko gaiak. Honexegatik beharrezkoa da arauak eta prozedurak ezagutzea, harreman-mota bakoitza behar bezala betetzeko eta, honela, entitateen aktiborik garrantzitsuena zaintzeko: pertsonak.

---

#### **Helburuak**

Ikastaro honen bidez jakinen dugu zer kontzeptu izan behar ditugun argi gure entitateko aktiborik garrantzitsuenak, hots, bertako boluntarioak eta langileak, bai besteen kontura kontratudun modura, bai norbere kontu profesional modura, kudeatzean. Harreman-mota bakoitzaren ezaugarriak eta gai honetan indarra duten legeak betetzeko jarraibideak ezagutuko ditugu.

---

#### **Edukiak**

- Gure entitateko giza baliabideak: langileak, profesionalak eta boluntarioak.
- Boluntarioen lege-araubidea.
- Besteen kontura aritzen diren langileen lege-araubidea.
- Profesionalekiko harremanak.
- Ezohiko lanak.

---

**Iraupena: 3 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

#### **Nork emana: Ana Belén Albero Díaz**

Abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa

## 4. Elkarteen kudeaketa

### **Datak**

Urtarrilak 28 eta martxoak 4

### **Ordutegia**

Ostiralean. 17:00 - 20:00

### **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

### **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 21a arte

## 4.2. ELKARTEEN FINANTZAKETA ETA KONTABILITATEA.

Funtsak bilatzeak eta horiek kontabilitatean islatzeak askotan kezkatzen ditu elkarreak. Ikastaro honen bidez oinarritzko tresnak eman nahi dira, finantzaketa bilatzea eta hura kontabilitatera itzultzea arazo izan ez dadin entitateentzat.

---

### **Edukiak**

- Araudia
- Finantزابideak.
- Zer da kontabilitatea, kontzeptuak, zertarako balio du...
- Kontabilitatea eramatera behartuta nago? Nola egiten da kontabilitatea?
- Kontabilitate-motak.
- Kontabilitate-prozesua: Hasiera. Garapena. Itxiera, urteko kontuak.
- Egunerokoa, kontabilitate-kontuak. Liburu Nagusia. Urteko kontuak, balantzea, emaitza-kontua eta memoria.
- Adibide praktikoak: gastuak eta diru-sarrerak.
- Programak eta tresnak.

---

**Iraupena: 6 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

**Nork emana: Abel Álvarez Páez**, Ekonomiako lizentziaduna. Kontu-hartzailea.

# 5. Trebetasun teknologikoak

## **Datak**

otsailak 2, 3, 9 eta 10

## **Ordutegia**

Ordutegia: asteazken eta ostegunetan, 16:30 - 19:30

## **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 21a arte

## 5.1. KOMUNIKAZIO DIGITALA ELKARTEENTZAT

Gaur egun, ez da nahikoa elkarteek beren zeregina betetzea, hura ezagutzera eman beharra dago-eta, baina ez da erraza lanaren berri eman dezaketen bideen gainean egunean egotea.

Ikastaro honetan, ikuspegi teoriko eta praktikotik helduko zaio gaiari, elkarteak edo kolektiboak ezagutzera emateko beharrezko oinarritzko ezagutzak bereganatu eta komunikazio-plan digital koherentea eta eraginkorra aplikatzeko.

---

### **Helburuak**

- Onlineko komunikazio-ekintzak egiteko oinarritzko ezagutzak ematea
- Estetika- eta estrategia-irizpideak sortzea komunikatzeko orduan

---

### **Edukiak**

- Komunikazio-plana: Ingurunea eta mezu-hartzaileak aztertzea bitarteko egokietan mezu zuzenak emateko
- Storytelling-a: Balioen komunikazioa
- Non egon behar dugu? Euskarriak eta bitartekoak hautatzea.
- Sare sozialen kudeaketa: tonua, estetika.
- Onlineko komunikazioa: Sareen kudeaketa, engagement-a eta biral bihurtzeaitzea

---

### **Metodologia**

Metodologia teoriko-praktikoa. Proiektu komun baten inguruan lan egingen da, taldeka, atal teorikoan ikasitakoa aplikatuz. Horretarako, ikasle bakoitzak ordenagailu eramangarri bat ekarri beharko du eta sare sozialak ezagutu beharko ditu (erabiltzaile maila).

Google Classroom-ekin egingen da lan: materiala, egin beharreko ariketak eta ikasleen lanak igoko dira bertara.

---

**Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Ane Aldaya Arriaza.**

Komunikazio teknikaria eta Community Managerra.

# 6. Kulturartekotasuna

## **Datak**

Urtarrilak 21, 22 eta 27 eta otsailak 10 eta 17 (ostiralak)

## **Ordutegia**

Urtarrilak 21, ostirala, 17:00-20:30.  
Urtarrilak 22, larunbata, 10:00-14:00.  
Urtarrilak 27 eta otsailak 10 eta 17, ostegunak, 18:00-20:30

## **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## **Behin-behineko izen-ematea**

Urtarrilaren 17ra arte

## 6.1. NOLA EGIN AURRE GATAZKEI KULTUREN ARTEKO BURUZ-BURUKO KOMUNIKAZIOAN?

Komunikatzeak askoz ere gehiago eskatzen du hizkuntza bat partekatu eta esaldi gramatikalki zuzenak egitea baino, informazioa helaraziko badugu. Aurrez aurreko solasaldietan, adierazkortasun ezberdineko mezuak gertatzen dira, aldi berean, eta horrek erraztu edo zaildu egiten ditu komunikazio-prozesuak.

Migratzaileek eta bertakoek osatutako talde mistoetan aztertuko dugu komunikazio-kultura ezberdinetako pertsonen arteko topaketa batzuetan sortzen diren gorabeheretan kultur elementuen eragina, horiei aurre egiteko gatazkak sortu baino lehen eta komunikazioan sortzen direnean. Elkar ulertzea erraztu nahi dugu kulturen artean komunikazioa argiago eta eraginkorragoa izan dadin hiri gero eta anitzagoan.

---

### **Helburuak**

- Kultura ezberdinetako pertsonen arteko komunikazioa ulertzea.
- Hirian kulturarteko komunikazioa hobetzeko praktikak eraikitzea.
- Lankidetzako harremanak erraztea kulturarteko testuinguruetan.

---

### **Edukiak**

- Giza komunikazioa aurrez aurreko prozesu gisa. Hitzetatik haratago.
- Elkarreagin komunikatiboaren neurriak
- Zer da kulturarteko komunikazioa?
- Gertakari kritikoak kulturen arteko komunikazioan
- Gatazkak: motak eta dinamikak
- Gatazkaren zirkulua eta parte hartzen duten elementuak.
- Pertsonen arteko eta taldeen gatazkak konpondu eta / edo eraldatzeko ereduak

---

### **Metodologia**

Gogoeta-ekintzako eredu pedagogikoa. Sarrera teorikoetatik abiatuta, parte-hartzaileek eguneroko testuinguruetan duten esperientziaren edukiak ematen dituzte.

Taldea ikaskuntza eta ikerketa gune gisa, non ohiko egoerak zehazten baitira, elkarlaneko komunikazioa erraztuko duten praktika alternatiboak batera sortzeko.

---

### **Iraupena: 15 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Blas Campos Hernández**

BIDARI Prestakuntza eta Aholkularitza, Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Krisialdian esku hartzeen espezialista. Diplomaduna profesionalen Orientazioan eta Gainbegiratzean Familia-terapeuta sistemikoa.

# 6. Kulturartekotasuna

## **Datak**

Martxoak 4 eta 5

## **Ordutegia**

Ostiralean, 17:00 - 21:00, eta larunbatean, 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00.

## **Tokia**

ZENTRO, elkarlaneko gunean (Kondestablearen jauregia), kale Nagusia, 2.

## **Behin-behineko izen-ematea**

Otsailaren 18ra arte

## 6.2. ANTZERKI FORO INTERSEKZIONALA, HAUSNARKETATIK PRAKTIKARA

La Xixa Teatren badakigu Teatre Foroa aldaketa sozialerako lanabes berritzaile eta beharrezkoa dela. Justizia Globalaren aldeko antzerkia da, harremanak gizatiartzen dituena eta erronka erreal eta zehatzen aurrean jartzen gaituena eguneroko gatazka funtsezkoetarantz.

Lantegi honetan baliabideak eta antzerki teknikak elkarbanatu nahi ditugu, parte-hartzaileek kulturartekotasuna eta estereotipo kontzeptuei buruz hausnartu eta sakondu dezaten, bai norbanakoaren baita kolektiboen eskarmentutik.

---

### **Helburuak**

Lantegiaren helburu orokorra da parte-hartzaileei Antzerkiaren bidez hausnarketa eta praktika gune bat eskaintzea, gizarte eraldaketa, kulturarteko elkarriketa eta bake kulturarako baliabide gisa. Halaber:

- Ezagutaraztea zapalduen antzerkia, parte-hartzeko metodologia eta herri-hezkuntzaren oinarriko kontzeptu teoriko-praktikoak.
- Kontzientzia hartzea aniztasuna eta kultuarartekotasunaren inguruan, eta bake kulturarako duen garrantziaz.
- Zapalduen Antzerkiaren teknika erabiltzea pertsonen arteko eta taldeetako gatazkek identifikatu eta konpontzeko.

---

### **Edukiak**

Landuko diren edukiak honako hauek izanen dira:

- Norbanakoa eta gizartea. Zergatik mobilizatu?
- Kulturartekotasuna eta interseksionalitatea. Zein da nire maila? Zeintzuk dira nire aurreiritziak?
- Antzerkia gizartea eraldatzeko tresna gisa.

---

### **Metodologia**

Honako tresna hauek dira abiapuntu:

- Zapalduen Antzerkiaren metodologia
- Metodologia parte-hartzaileak

---

**Iraupena: 12 ordu (aurrez aurrekoa)**

---

### **Nork emana: Rocío Cuadra Vergara (La Xixa Teatre).**

Aktorea, bitartekari artistikoa eta Teatro Foro interseksionalaren dinamizatzailea.



# Egutegia. Urtarrila

## 1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- 1.1. Etsaiaren irudiak deseraikitzea
- 1.2. Komunikazio eraginkorra praktikatuz (euskaraz)
- 1.3. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik abiatuta

1 2

## 2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- 2.1. Egitasmoak eta taldeak birbideratu pandemia osteko testuinguruan
- 2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekariaren esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak.
- 2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)
- 2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)
- 2.5. Garapen jasangarriko helburuak: sarrera.denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)
- 2.6. Hemen eta orain: adinekoren begirada eta ahotsak

3 4 5 6 7 8 9

## 3 GIZARTERATZEA

- 3.1. Irisgarritasun kognitiboa eta irakurketa erraza: desgaitasun intelektuala duten pertsonendako herritarren partaidetzarako lanabesa
- 3.2. Paris 365: elkartasuna elikatzeko errezetak
- 3.3. Gizarte mentoretza: laguntza informala
- 3.4. Herritar aktiboak eta inklusiboak: begirada bat desgaitasunetik eta nerabazarotik

17 18 19 20 21 22 23

2.6  
4.1  
6.1

6.1

## 4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- 4.1. Giza baliabideak zure elkartearen: boluntarioak, norbere kontura lan egiten duten profesionalak etabestearen kontura lan egiten duten langileak
- 4.2. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea.

31

## 5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- 5.1. Komunikazio digitala elkarreentzat

## 6 KULTURARTEKOTASUNA

- 6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?
- 6.2. Antzerki Foro intersektionala, hausnarketatik praktikara

# Egutegia. Otsaila

## 1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- 1.1. Etsaiaren irudiak deseraikitzea
- 1.2. Komunikazio eraginkorra praktikatuz (euskaraz)
- 1.3. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik abiatuta

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>
2.1	5.1	2.5	1.2	1.2	
2.5	3.1	5.1	2.6		

## 2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- 2.1. Egitasmoak eta taldeak birbideratu pandemia osteko testuinguruan
- 2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekariaren esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak.
- 2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)
- 2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)
- 2.5. Garapen jasangarriko helburuak: sarrera.denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)
- 2.6. Hemen eta orain: adinekoen begirada eta ahotsak

<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>
	2.1	5.1	5.1			
	3.1	3.1	6.1			

- 2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)
- 2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)
- 2.5. Garapen jasangarriko helburuak: sarrera.denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)
- 2.6. Hemen eta orain: adinekoen begirada eta ahotsak

<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>
		2.3	3.3	2.6		
		2.4	6.1			

## 3 GIZARTERATZEA

- 3.1. Irisgarritasun kognitiboa eta irakurketa erraza: desgaitasun intelektuala duten pertsonendako herritarren partaidetzarako lanabesa
- 3.2. Paris 365: elkartasuna elikatzeko errezetak
- 3.3. Gizarte mentoretza: laguntza informala
- 3.4. Herritar aktiboak eta inklusiboak: begirada bat desgaitasunetik eta nerabezarotik

<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>
	2.1	2.3		2.6		
		2.4				

**28**  
2.2

## 4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- 4.1. Giza baliabideak zure elkartearen: boluntarioak, norbere kontura lan egiten duten profesionalak etabestean kontura lan egiten duten langileak
- 4.2. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea.

## 5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- 5.1. Komunikazio digitala elkarreentzat

## 6 KULTURARTEKOTASUNA

- 6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?
- 6.2. Antzerki Foro intersektionala, hausnarketatik praktikara

# Egutegia. Martxoa

## 1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- 1.1. Etsaiaren irudiak deseraikitzea
- 1.2. Komunikazio eraginkorra praktikatuz (euskaraz)
- 1.3. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik abiatuta

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>
2.1			2.6	6.2	
2.2			4.2		
			6.2		

## 2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- 2.1. Egitasmoak eta taldeak birbideratu pandemia osteko testuinguruan
- 2.2. Bizikidetzaren sustatzea: bitartekariaren esku-hartzeetarako tresnak eta estrategiak.
- 2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)
- 2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)
- 2.5. Garapen jasangarriko helburuak: sarrera.denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)
- 2.6. Hemen eta orain: adinekoen begirada eta ahotsak

<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>
2.2			2.1			

- 2.3. Bileren dinamizazioa (gaztelaniaz)
- 2.4. Bileren dinamizazioa (euskaraz)
- 2.5. Garapen jasangarriko helburuak: sarrera.denondako OPAROTASUNA? (ODS 7, 8, 9, 10, 11)
- 2.6. Hemen eta orain: adinekoen begirada eta ahotsak

<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>
2.2	2.2			1.3	1.3	
				2.6		

## 3 GIZARTERATZEA

- 3.1. Irisgarritasun kognitiboa eta irakurketa erraza: desgaitasun intelektuala duten pertsonendako herritarren partaidetzarako lanabesa
- 3.2. Paris 365: elkartasuna elikatzeko errezetak
- 3.3. Gizarte mentoretza: laguntza informala
- 3.4. Herritar aktiboak eta inklusiboak: begirada bat desgaitasunetik eta nerabezarotik

<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>
				2.6		

## 4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- 4.1. Giza baliabideak zure elkartearen: boluntarioak, norbere kontura lan egiten duten profesionalak etabestean kontura lan egiten duten langileak
- 4.2. Elkartearen finantzaketa eta kontabilitatea.

<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>
3.2	3.4	3.2	

## 5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- 5.1. Komunikazio digitala elkarreentzat

## 6 KULTURARTEKOTASUNA

- 6.1. Nola egin aurre gatazkei kulturen arteko buruz-buruko komunikazioan?
- 6.2. Antzerki Foro intersektionala, hausnarketatik praktikara



#### Informazioa eta harremanetarako datuak

**Tfno** 948 42 02 66  
**Email** [formacion.participacion@pamplona.es](mailto:formacion.participacion@pamplona.es)  
**Webgunea** <http://participa.pamplona.es/>  
<https://erabaki.pamplona.es>

**Youtube:** [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)  
**Facebook:** Parte Hartu Iruña  
**Twitter:** @partehartu\_iru  
**Flickr:** [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona/)



[participa.pamplona.es/](http://participa.pamplona.es/)



[erabaki.pamplona.es](http://erabaki.pamplona.es)